

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Datorren ostiraletik aurrera, Nafarroako autobide eta autobietako seinaleek 120 km/h-ko abiadura muga adieraziko dute berriz ere

*Zenbakia ostegun gauean, ekainak 30, aldatuko dute*

Miércoles, 29 de junio de 2011

Datorren ostiralean, uztailaren 1ean, Nafarroako Foru Erkidegoko Errepide Sareko autobide eta autobietako 316 seinalek 120 km/h-ko abiadura adieraziko dute berriz ere, orain arte adierazi duten 110 km/h-ko abiaduraren orde. Zenbakia ostegun gauean, ekainak 30, aldatuko dute. A-12 autobien kasuan, ostiraleko goizeko 8:00ak baino lehen aldatuko dute.

Jarduera hori joan den ekainaren 25ean, ostiralean, ministroen kontseiluak hartu zuen erabakia dela eta burutuko da. Erabaki horren bidez, autobidetik edo autobietatik zirkulatzeko abiadura mugak berrezartzea adostu zuten. Neurria uztailaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.

Aldatu behar diren 316 seinaleetatik 58 A-12an daude eta Autovía del Camino S.A. sozietate kontzesionarioak aldatuko ditu. Beste 63 seinale AP-15 autobidean daude eta AUDENASAK aldatuko ditu. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua gainerako autobietako 195 seinaleak aldatzeaz arduratuko da (A-1, A-10, A-15, A-21 eta A-68) "2009-2012 aldian Nafarroako Foru Komunitateko errepideetan seinale bertikalak zaintzeko" kontratuaren Lacroix Señalización izeneko enpresa esleipendunaren bidez, martxoan egin zen moduan.

Jardun horrek errepide sareko 309 km ukituko ditu guztira. 112 km AP-15 errepideari dagozkio, 72 km A-12 errepideari, 14 km A-1 errepideari, 29 km A-10 errepideari, 28 km A-15 errepideari, 22 km A-21 errepideari eta 32 km A-68 errepideari.

Nafarroako Gobernuak, seinale horiek aldatzeko, 2 zenbakiaren gainean 1 zenbakia jartzea erabaki zuen, pegatina berezi batzuk ipinita. Hortaz, 120 km/h adierazten zuten hasierako seinaleak berriz ezartzeko, pegatina horiek kenduko dira. 1.500 euro erabiliko dira Herri Lan Departamentuak zuzenean aldatuko dituen 195 seinaleetako pegatinak kentzeko.